



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Jose M. Alzuri Vertiz  
Javier Bereau Miquelarena  
M. Izaskun Altxu Ariztegi

2018ko uztailaren 6an, 12:00ak direnean, Ohiz kanpoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. ITURENGO KALEKO ARGIEIEN BERRITZEA.**

2018ko otsailaren 12ko Osoko Bilkuran onetsi ziren “Iturengo kaleko argien berritzea” izeneko proiektua eta inbertsioaren finantza plana, 38.285,00 euro —gehi BEZa— delarik obraren aurrekontua. Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak zehaztu zuen finantza-ekarpena ekainaren 18ko 378/2018 Ebazpenean (2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana).

Obra esleitzea dagokio eta Kontratu publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 81.artikuluaren arabera zenbateko txikiko kontratua da eta izapide hauek egin behar dira: aurretiaz kreditua erreserbatu, aplikatu beharreko aurrekontu eta kontabilitate araudiaren arabera, eta faktura aurkeztu. Iturgintza Berotza SL-ek aurkeztu du 38.285,00 euroko eskaintza (gehi BEZa) obra egiteko. Aipatutakoak kontuan izanda, aho batez erabakitzen da:

1. Obra egiteko gastua baimentzea eta dagokion kreditua erreserbatzea 2018ko aurrekontuan: 46.324,85 euro arte exekuzio-materiala egiteko, 1-650-62200 kontu-saila.

2. “Iturengo kaleko argien berritzea” izeneko proiektuan dauden lanak esleitzea ITURGINTZA BEROTZA SL enpresari, B31608581 IFK, hogeita hemezortzi mila berrehun eta laurogeita bost eurotan (38.285,00 €), gehi BEZa —%0ko diferentzia aurrekontuarekin—.

3. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari. Bestek beste, klausula hauek sartuko dira kontratuan: obrak egiteko epea, 45 egun, hasiera-aktako datatik kontatzen hasita; 18/2016 Foru Legearen 20. artikuluko gizarte-klausula.

4. Envés Ingeniería-ri ematea obrako zuzendaritza teknikoaren ardura (O.J.C.M. eta J.J. V.F.) 1.531,40 eurotan (gehi BEZa) —%0ko diferentzia aurrekontuarekin—.

5. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari eta obrako zuzendariari.

## **2. 2017KO KONTUAK.**

Udalak aldeko txostena eman zuela ikusirik eta espedientea jendaurrean egon den epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu kontuan hartuz, 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluanekin bat etorriz, aho batez onesten dira 2017ko kontuak.

Eta bertzerik ezean, 12:30ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.